

EMAKUMEEN JAKINTZA ETA HAIEN EKARPEN SOZIAL ETA HISTORIKOA INTEGRATZEA. LEHEN HEZKUNTZA

AHALDUNDUAK



MATILDA GEHIAGORIK EZ

Emakumeek zientziaren esparruan pairatu duten sexismoaren gauzatze nabarmenetako bat da “Matilda efektua”. Kontzeptu hori fenomeno hau deskribatzeko erabiltzen da: emakumeen lorpen eta asmakizunak beren lankide diren gizonei egotzea.

HELBURUA

- Emakume zientzialariek historian zehar gainditu behar izan dituzten zailtasunak eta pairatu dituzten diskriminazioak ezagutzea.
- Ezkutuan edo ahaztuta dauden zientzialari eta asmatzaileen izenak ezagutaraztea.
- Errespetuz eta elkarrizketarako jarrera irekiaz parte hartzea.
- Jarrera enpatikoa agertzea.

GARAPENA

Jarduera honi ekin aurretik, komeni da  ariketa egitea, giro lasaia lortzeko eta ikasleak era horretako jardueretara ohitzeko

Hasteko, jardueraren helburuak azalduko dizkiegu ikasleei.

“Matilda efektua” eranskinean azaltzen den kontzeptuari helduko diogu, zientzian sexuagatiko diskriminazioaren inguruko eztabaida sortzeko. Horretarako, galdera batzuk egingo ditugu lehenik:

- Zergatik uste duzue historian zehar zientziara dedikatu diren emakumeak gizonak baino gutxiago izan direla?
- Nola sentituko zinategete zuen lan bat, asmakizun bat edo esfortzu bat beste pertsona bati egotziko baliote?

Jarraian, “Matilda efektuaren” esanahia azaldu eta zientzialari famatu batzuen izenak berreskuratzeko proposatuko diegu. Horretarako, hiru edo sei talde mistotan banatuko dugu taldea, eta talde bakoitzari esteka honetan dauden hiru zientzialariak lantzeko esango diegu: <https://www.nomorematis.com/libros>

- Elsa Einstein
- Annemarie Bertel Schrödinger
- Williamina Fleming

Sei talde baldin badauzkagu, bi taldek zientzialari berbera landu dezakete; edonola ere, orrialde horretan agertzen diren beste emakumeren bat lantzeko aukera ere badago. Webgunean, curriculum-ildo ezberdinetako emakume zientzialariak lantzeko materiala dago eskuragarri, “Nomorematis” baliabidean

Helburua da taldeak material hori irakurtzea eta emakume horren biografiaren elementu garrantzitsuenak laburtzea, ikaskideen aurrean azaltzeko. Horretarako, galdera hauek erantzun ditzakete:

EMAKUMEEN JAKINTZA ETA HAIEN EKARPEN SOZIAL ETA HISTORIKOA INTEGRATZEA. LEHEN HEZKUNTZA

- Nor da zientzialaria?
- Non eta noiz jaio zen?
- Zertan aritzen den?
- Zein arazo izan zuen bere ibilbide zientifikoan?
- Zein aurkikuntza garrantzitsutan hartu zuen parte?
- Aurkikuntzaren aurkitzailea edo parte-hartzailea zela aitortu zioten? Hala izan ez bazen, nori egotzi zitzaion lorpena?

Azkenik, “Matilda gehiagorik ez “ bideoa jar diezaiekegu: <https://youtu.be/M674GHNV1S0>

Egin duten lan horrekin aurkezpen bat antolatu daiteke, blog bat sortu, ikastetxeko webgunean eskegi... Hau da, lan horri publizitatea eman dakioko ikastetxeko ikasleek, familiek eta ikastetxeko gainerako langileek gaiari buruz hausnartu dezaten.

IRAUPENA

Dinamikak ordubete inguru iraun dezake; dena den, eztabaidarekin luza daiteke.

BALIABIDEAK

- Matilda efektua. https://eu.wikipedia.org/wiki/Matilda_efektu
- Nomorematildas. https://www.nomorematildas.com/pdf/encartes/Anexo_NoMoreMatildas.pdf
- Matilda gehiagorik ez. <https://youtu.be/M674GHNV1S0>
- Mateotik Matilda efektura. <https://zientziakaiera.eus/2014/10/03/emakumeak-zientzia-eta-diskriminazioa-mateotik-matilda-efektura/>

GEHIAGO JAKITEKO:

- Orrialde honetan ikertu dezakegu gehiago emakume zientzialariei buruz: <https://mujeresconciencia.com/>